



AGINDUA, 2024ko abuztuaren 27koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, diru-laguntza izendunak ematea onartzen duten aginduen sinadura eskuordetzea erabakitzen duena eta Turismo eta Merkataritzako sailburuordearen esku uzten duena.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2021eko urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuak, 3.1. artikuluan, laguntzak eta diru-laguntzak emateko eskumena ematen dio saileko titularrari, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen, abenduaren 21eko 20/2023, legearen 9.1 artikuluekin bat etorritik.

Aurrekoaren ondorioz, eta efikaziaren eta efizientziaren printzipio orokorrekin bat etorritik administrazio-kudeaketa errazte aldera, gomendatzen du, arrazoi tekniko eta juridikoengatik, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen (aurrerantzean, 3/2022 Legea) 26. artikulua¹ aurreikusten duen sinadura eskuordetzeko ahalmena erabiltzea, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak esleituta dituen administrazio-eginkizunak behar bezain azkar eta eraginkortasunez betetzeko.

Horrenbestez, 3/2022 Legearen 26. artikuluekin bat etorritik, honako hau ebatzi dut:

Lehenengoa.- Turismo eta Merkataritzako sailburuordearen esku uztea diru-laguntza izendunak ematea onartzen duten aginduak sinatzea.

Bigarrena.- Agindu honen xede den sinadura-eskuordetzea edozein unetan erreboka daiteke, eta ez da eragozpena izango Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak eskuordetze honen xede den edozein gairen berri izan eta erabaki dezan, betiere pertsona eskuduna kanpoan edo gaixorik badago eta bere eskumenen esparruan.

Hirugarrena.- Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 26.4 artikuluekin bat etorritik, sinadura eskuordetzeak ez du aldatuko organo eskuordetzailearen eskumena eta, eskuordetzea baliozkoa izateko, ez da beharrezkoa izango argitaratzea; baina, eskuordetzaz sinatzen diren ebazpen eta jardueretan, adierazi egin beharko da norena den eskumena.

Laugarrena.- Akordio honetan ezartzen den agindu eta administrazio-egintzen sinaduraren eskuordetzea Turismo eta Merkataritzako sailburuordeari jakinaraziko zaio, eta eskuordetze honek sinatu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abuztuaren 27a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ

¹ 26. artikulua.- Sinadura eskuordetzea.

1.- Administrazio-organoetako titularrek haien eskumeneko administrazio-ebazpenak eta administrazio-egintzak sinatzea eskuordetu ahal izango diete mendeant dituzten administrazio-organoetako titularrei eskuordetze hori arautzen duen araubide juridiko orokorrari jarraituz.

2.- Gainerako organoetako titularrek, berriz, organo horien mende dauden administrazio-unitateei eskuordetu ahal izango diete sinadura, goragoko nagusiaren baimenarekin.

3.- Sinadura eskuordetzeak ez du argitaratzera behartzen.

4.- Sinadura eskuordetzeak ez du aldatuko organo eskuordetzailearen eskumena eta, eskuordetzea baliozkoa izateko, ez da beharrezkoa izango argitaratzea; baina, eskuordetzaz sinatzen diren ebazpen eta jardueretan, adierazi egin beharko da norena den eskumena.

5.- Zehatzeko ebazpenak ezin izango dira eskuordetzaz sinatu.

